NAFARROAKO BANDA ZABALAREN PLAN ZUZENTZAILEKO PROZESU PARTE-HARTZAILE

(2016-2021)

CEDERNA GARALUR ELKARTEAREKIN Arbizun egin zen lurralde-bileraren txostena

Arbizun, 2016ko abenduaren 1ean

Eguna: abenduaren 1a

Lekua: Arbizu. Utzugune. Utzugune industrialdea.

Eguna: 2016ko abenduaren 1a, osteguna

Ordua: 12:30-14:30

BERTARATUAK

- **Ignacio Enrique Moreno Aranburu** (Informatikaren, Telekomunikazioen eta Berrikuntza Publikoaren Zuzendaritza Nagusia, ITBPZN - Azpiegitura Teknologikoen eta Euskarri Zentroaren Zerbitzua).
- **Jesus Izal**, NASERTICeko azpiegituren eta telekomunikazioen zuzendaria.
- **Belen Arrizabalaga,** NASERTICeko komunikazio- eta marketin-unitateko teknikaria.
- **Lorea Jamar,** Cederna Garalur Elkarteko teknikaria.
- **Susana Mendinueta,** Cederna Garalur Elkarteko Sakanako lurralde-garapenerako teknikaria.
- **Aitor Larratza,** Irurtzungo alkatea.
- **Ainara Aiestaran,** Uharte Arakilgo alkateordea.
- **Silvia Gonzalo,** Etxarri Aranazko Udaleko idazkaria.
- **Goio Santesteban,** Arakilgo Udaleko alkatea.
- **Patxi Razkin,** Lakuntzako Udaleko alkatea.
- **Javier Zelaia,** Urdiaingo Udaleko ordezkaria.
- **Ibon Mimentza,** Cederna Garalur Elkarteko kudeatzailea.
- **Francisco Javier Eslaba,** *SISNET Nuevas Tecnologías SL*ko arduradun teknikoa.
- **Mikel Azkargorta,** Olaztiko Udaleko ordezkaria.
- **Xabier Senar,** Ergoienako Udaleko alkatea.
- **Iker Manterola,** Sakanako Garapen Agentziako kudeatzailea.
- **Karmele Marañon,** Arbizuko Udaleko alkatea.
- **David Campion,** Olloibarko Udaleko alkatea.

EGUNEKO GAI ZERRENDA

1. Ongietorria, sarrera eta lurralde-bileraren helburuak. Herritarren parte-hartze aldiari buruzko informazioa.

2. Banda Zabalaren Plan Zuzentzailearen zirriborroari buruzko argibide zehatzak (helburuak, printzipioak, agertokiak eta finantziazio-ereduak).

3. Eztabaida: galderak, ekarpenak, iradokizunak.

AZTERTUTAKO GAIAK

1. Ongietorria, sarrera eta lurralde-bileraren helburuak. Herritarren parte-hartze aldiari buruzko informazioa.

Bilkurari abenduaren 1eko eguerdiko 12:30ean eman zaio hasiera, Arbizuko Utzugane zentroaren prestakuntza-aretoan. Lorea Jamarrek egin die ongietorria bertaratuei, eta bertaratuen artean aurkezpen-txanda labur bat egin du.

Azalpenarekin hasi da Ignacio Moreno, Nafarroako Gobernukoa. Lurralde-bileraren helburuak, 2016-2021 aldirako Banda Zabalaren Plan Zuzentzaile berria idazteko burututako prozesua, eskualdeka egindako bilerak, udalekin eta operadoreekin izandako bilerak, eta jasotako proposamenak azaldu ditu. Lan-prozesua, Plan Zuzentzailea eta bileren aktak Gobernu Irekiaren Atarian daude eskuragarri. Ignacio Morenok plana parte hartzearen bitartez idatzi dela azpimarratu du, toki-erakundeekin 37 bilera, telekomunikazioetako operadoreekin 17 bilera, eta erakundeekin eta agentziekin 12 bilera egin ondoren. Sakanan eskualde-bilera bat egin da, eta bi bilera Sakanako Garapen Agentziako kudeatzaile Iker Manterolarekin.

Jesus Izalek esan du herritarrek 2016ko abenduaren 15era arte egin ditzaketela ekarpenak. Ekarpen, iradokizun, iruzkin horiek linean utz daitezke horretarako gaitutako helbidean, edo posta-mezua bidal daiteke *bandaanchanavarra@navarra.es* helbidera.

2. Banda Zabalaren Plan Zuzentzailearen zirriborroari buruzko argibide zehatzak (helburuak, printzipioak, agertokiak eta finantziazio-ereduak)

Plan Zuzentzailea azaltzen hasi aitzin, Jesus Izalek telekomunikazioen merkatuak duen konplexutasuna aipatu du: merkatu liberalizatua bada ere, oso zorrotz dago arautua, eta operadoreek merkatua zabaltzen den ala ez erabakitzen dute (non eta noiz); bien bitartean, erakunde publikoek bitartekoak jartzen dituzte, eta hedatzeko oztopoak kentzen dituzte (diru-laguntzen bitartez edo hedapenerako laguntzak emanez), nahiz telekomunikazio-sareen euskarri izanen diren azpiegitura pasiboak jartzen dituzte. Testuinguru horretan, Nafarroako Gobernuaren eginkizuna da CNMTren, CNMCren, operadoreen eta erakunde publikoen arteko interfaze lana egitea; batetik enpresek hedatzeko dituzten asmoak ezagututa, eta bestetik udalen herri-lanak zein izanen diren ezagututa, besteak beste. Ildo horretan, honako hauek dira Nafarroako Gobernuaren lehentasunak: batetik, belaunaldi berriko banda zabaleko sareen (NGA) hedapena ebaztea foru-erkidego osoan, eta bestetik, hedapen hori erakargarri bihurtzea telekomunikazioetako enpresa operadoreen artean.

Hortaz, hasteko, Europako Agenda Digitalak 2020rako dituen helburuak aurkeztu ditu: herritarren % 100ak izan behar du estaldura 30 Mbps-ra, eta % 50ak lotura kontratatua 100 Mbps-ra. NGAk gaur egun Nafarroan dituen estaldura datuekin: Nafarroako herritarren % 74k aukera dauka 30 Mbps-ko linea bat edukitzeko, eta % 69k 100 Mbps-

koa, nahiz eta estaldura hori, lurraldeari dagokionez, Iruñerrira eta Erriberako zati batera mugatuta dagoen.

Nafarroako Mendialdean ez dago NGA sareen estaldurarik (% 0), nahiz eta Sakanako hainbat lekutan (Altsasu, Lakuntza, Etxarri Aranatz kasurako, eta luze gabe Arbizun) NGA sareak hedatzen hasi diren.

Banda Zabalaren Plan Zuzentzaileko lau ardatzetatik garrantzitsuena eta planaren jarduerak definitzen dituena "***lurralde-egituraketa***" da: Plan Zuzentzailearen asmoa da banda zabaleko sarea Nafarroako lurralde osora zabaltzea, eta horrela, Europako Agenda Digitaleko helburuak betetzea, eta sarearen epe luzerako plangintza egitea, gaur gero entseatzen ari diren etorkizuneko teknologiak hartu ahal izateko. Horrek entitate publikoak eta telekomunikazioetako operadoreak lankidetzan jardutea eta hedapenerako egon daitezkeen oztopoak murriztea eskatzen du.

Bestalde, banda zabaleko NGA sareak hedatzeak berarekin dakartza:

- Batetik, sareko ***parte "aktiboa"*** berritzea: ekipo elektronikoak, eta abar. Operadoreen esku geratzen den parte horrek du kosturik txikiena, eta zaharkitze teknologikoari erreparatuta, batez beste 5-7 urteko bizitza dauka.
- Kosturik handiena sarearen ***azpiegitura "pasiboa"*** berritzeak dakar, hau da euskarri fisikoak berritzeak (zuntz optikoa eta obra zibila, kasu): kanalizazioak, kutxatilak, dorreak, telekomunikazio-guneak, harguneak, eta abar. Azpiegitura hori, batez beste, sarearen parte aktiboa baino zazpi bider garestiagoa da, baina 20 urtetik gorako bizitzaldia dauka. Entitate publikoek parte horretan esku har dezakete, bitartekoak jarriz eta obra zibila murriztuz. Ildo horretan, hainbat modu aipatu dira: obra zibila zuzenean finantzatuta, Plan Zuzentzailean aipatzen diren ustiapen-eredu desberdinak diruz lagunduta, udalak errepideen mantentze-lanen, kaleetako obren, ur-kanalizazioen eta bestelakoen berri Nafarroako Gobernuari emanda.

Hainbat udalek azpiegitura pasiboa jartzeko aukerengatik interesa erakutsi dute. Ignacio Morenok **udalei** gomendatu die **Telekomunikazioen Zuzendaritza Nagusiari eman diezaioten edozein obra zibili buruzko informazioa** (galtzadaren mantentze-lana, hoditeriak eta arketak jartzea, eta abar), zuntz optikorako azpiegiturarako hodi bat edo batzuk sartzeko aukera aztertzeko. Sarea lurperatzea gomendatzen da, balioaniztunagoa baita.

- Sakanako Garapen Agentziako Iker Manterolak proposatu du hedapena ur-kanalizazioetatik egitea. Nafarroako Gobernuak esan du egingarria dela, betiere kanalizazioaren jabearen adostasunarekin, eta benetako aurrezpena dakarrela bermatzen bada. Jarraian instalazioa nola egiten den azaldu du.

- Javier Zelaiak argi-kanalizazioetarako eta euri-sareko kanalizazioetarako aurreikusitako lanak erabil daitezkeela proposatu du. Nafarroako Gobernuak esan du egingarria dela, betiere gutxienez hodi malgu batentzako lekua badago. Jarraian instalazioa nola egiten den azaldu du.

- Olloibarko alkate David Campionek galdetu du zer aukera dagoen hedapena egiteko gaur egun dauden airetiko linea elektrikoak erabilita. Nafarroako Gobernuak esan du lehenik linea elektrikoaren jabeari baimena eskatu behar zaiola (Moviestar-i, telefoniaren kasuan; Renferi, trenaren kasuan), eta kargen azterlan bat egin beharra dagoela lineek azpiegituren zama erantsia paira dezaketen jakiteko. Izan ere, beste hainbat autonomia-erkidegotan egin diren frogetan ez da emaitza onik lortu; hortaz, oro har, lurperatzea gomendatzen da. Alabaina, kasu bakoitzean aurrez daitekeena aztertu beharko litzateke.

Printzipio horiek aintzat hartuta diseinatu da Nafarroako 2016-2020 aldirako Banda Zabalaren Plan Zuzentzailea. Planak bost egoera definitzen ditu:

1. egoera: Nafarroako Gobernuaren sare korporatiboen interkonexioa. Sare hori zabaltzeko lanak balia daitezke aurrera begira zuntz optikoko konexiorako hodi berriak sartzeko. Nafarroako Gobernuaren sare korporatiboa autobien eta autobideen inguruan egituratuta dago (A10, AP15, A15, A21), baita errepide nazionalen inguruan ere.

2. egoera: industrialdeak konektatu. Kasu horretan, estaldurarik ez duten eremuetan **("eremu zuriak")** industrialdeen **barne-konexioa egiteko diru-laguntza publikoak ematea** proposatzen da. Kostuaren % 40 Nafarroak hartuko luke bere gain Ekonomia Garapenerako Departamentuaren bitartez, eta % 60 inbertsio pribatuen bitartez (70,5 milioi euro inguru).

- Sakanako Garapen Agentziako Iker Manterolak galdetu du ea toki-administrazioak ba ote duen finantziazio horretara biltzerik, Irurtzunen eskualderako lehentasunezkotzat jotzen den INASA industrialdea hedatzea bizkortzeko.

Industrialdeko sarrerako sarbide-sarearen konexioa Banda Zabalaren Plan Zuzentzailean deskribatutako egoeren bitartez dago definituta. Kasu horretan, eta 3. egoerarekin loturik, aipatu da Sakana-Burundan **hiru industrialde daudela konexiorik gabe "eremu ez zurietan"**; alegia, banda zabala hedatzeko aurreikuspena duten eremuetan: Altsasu, Arbizu, Uharte Arakil eta Irurtzunen. Industrialde horien konektibitateak finantziazio publikoa jasotzeko, Ministerioari eskaera egin behar zaio, eremu horiek estaldurarik gabeko "eremu zuri" gisa definitu daitezen; hori **Nafarroako Gobernuaren bitartez bideratzen da.** Industrialde horien egoerak galderak sortzen ditu:

- Aitor Larrazak, Irurtzungo alkateak, interesa erakutsi du Toki Azpiegituren Planengatik (TAP), Irurtzungo industrialdeari konektibitatea emateko. Halaber, galdetu du zer izapide egin behar diren industrialde horiek estaldurarik gabeko "eremu zuri" izenda ditzaten. Jesus Izalen eta Ignacio Morenoren datuak hartu ditu bilera bat hitzartzeko.
- Patxi Razkinek galdetu du zer gertatzen den industrialdeetan ez dauden eta estaldurarik gabeko eremuetan dauden enpresekin. Nafarroako gobernuak esan du laguntza-lerro bat aurreikusi duela Ekonomia Garapenerako Departamentuan banda zabalaren premia handian dauden enpresa sortu berrientzat.

3. egoera: 3.000 biztanletik gora duten udalerriak; horietan espero izatekoa da operadoreek laguntza ekonomikorik gabe beren sarea hedatzen interesa izatea. Operadoreek Ministerioari herriren batean sarea hedatzeko interesa erakutsi badiote, herri hori ezin izanen da laguntza publikoetara bidu. Sakanan, egoera horretan dira Altsasu, Lakuntza, Etxarri Aranatz eta Arbizu. Etxarri Aranazko eta Lakuntzako alkateek galdetu dute nola geratzen diren estaldurarik jaso ez duten auzo bakanduek. Azaldutakoaren arabera, laguntzen beharrean daudela frogatuz gero, industrialdeekin egingo den gauza berbera egin beharko litzateke, eremu horiek **"zuritze"** aldera.

- Etxarri Aranazko alkate **Silvia Gonzalo**k eta Lakuntzako alkate **Patxi Razkin**ek galdetu dute ea telekomunikazioetako operadoreak behartuta ote dauden baimena eskatzera udalerrietan sareak hedatzeko. Nafarroako Gobernuak esan du Telekomunikazioei buruzko Lege Orokorraren arabera operadoreek hedapenaren berri eman behar dutela, baina ez daude baimena eskatzera behartuta, salbu eta obra zibili baldin badago.

- **Patxi Razkin**ek esan du Moviestarrek baieztatu duela haren komunikazio-zentro berria Lakuntzan egonen dela; horren arabera, litekeena da 10 kilometroko erradio bati zerbitzu ematea, hau da Uharte Arakil eta Arbizu barne. Etxarri Aranatzen hasiak dira Moviestar zerbitzua hedatzen. Nafarroako Gobernuak esan du herri horietan eta Altsasun banda zabala hedatuko den unetik beretik eremu horiek **"beltzak"** izatera pasako direla, estaldura duten eremuak izanen dira. Kasu horretan, ezinezkoa da laguntzak ematea hedapenean laguntzeko; ez lokalak, ez erregionalak, ezta nazionalak ere (Ministerioko PEBA Planekoak).

4. egoera: 1.000 eta 3.000 bitarteko herriak; horietan udalek interes handiagoa dute enpresa operadoreetan, eta ez da hedapenerako aurreikuspenik ikusten epe motzera. Halaxe gertatzen da Irurtzunekin eta Olaztirekin.

Kasu horretan, bi laguntza-eredu aurreikusten ditu Plan Zuzentzaileak: "*kontzesioko eredua*", % 75ean inbertsio publikoak finantzaturik. Erakunde publikoak sarearen zatirik handiena finantzatzen du, eta hainbat urtez (7-10) sarearen kudeaketa telekomunikazioetako enpresa bati uzten dio ekipo aktiboen inbertsioa amortizatzeko; ordainetan, enpresak zati pasiboa zein aktiboa hedatzen ditu. Erakunde publikoa sare pasiboaren jabea da, eta operadorea aktiboarena. Bestalde, "*diru-laguntzen eredua*" dago; % 25ean inbertsio publikoak finantzaturik. Kasu horretan, erakunde publikoak lehia publikora ateratzen du banda zabalaren zerbitzua. Edozein kasutan, tartean diru-laguntzarik baldin badago, enpresa esleipendunak operadore nagusi izan behar du, eta beste konpainia batzuen konexioa erraztu ahalbidetu behar du.

- Olaztiko alkate Mikel Azkargortak esan du Moviestarrek martxan duela hedapena Olaztin.

- Irurtzungo alkate Aitor Larrazak hedapen pasiboa herriraino eramateak izanen duen kostuari buruz egindako galderari erantzunez, Nafarroako Gobernuak esan du udalei lagun diezaiekeela kostu errealaren aurreikuspen bat egiten, betiere toki-erakundeak horretarako interesa badu. Horretarako, Nasertic-ekin edo

Telekomunikazioen Zuzendaritza Nagusiarekin harremanetan jarri behar du, edo posta-mezua bidali bandaanchanavarra@navarra.es helbidera.

- Operadoreek ere eska dezakete aurrekontu hori.

5. egoera: 1.000 biztanletik beherako herriak. Inbertsio-ereduak 4. egoeran aurkeztutakoak dira. Plan Zuzentzaileak 2.000 biztanletik 3.000ra bitarteko "elkartzeak" edo **"biztanleria gehitzeak"** sortzea proposatzen du, sarerako sarbide puntu komun batekin, operadorearentzat erakargarria izanen dena.

Azken bi kasu horietan, udalek sare pasiboa finantzatu edo diruz lagun dezakete. Horretarako Toki Azpiegituren Planak (TAP) bi finantziazio-bide aurreikusi ditu:

- **Erabilera libreko funtsak** udalentzat. Funts horiek herri barruko konexiorako erabil daitezke.
- **Toki Azpiegituretarako Plan Zuzentzaileko funtsak**, "gehitzeen" barneko konexioetarako aurreikusiak (5. egoera). Eskualde-laguntzen ehunekoa %80 da, eta % 20 toki-erakundeak hartzen du bere gain.

- Etxarri Aranaz, Lakuntza eta Uharte Arakilgo ordezkariek (Silvia Gonzalo, Patxi Razkin eta Ainara Aiestaran, hurrenez hurren) galdetu dute nola geratzen diren, Moviestar-ek baieztatu moduan, estalduratik kanpo geldituko diren auzo bakanduak. Nafarroako Gobernuari "gehitze" bat sortzea proposatu diote, kontuan har ditzaten, Toki Azpiegituretarako Plan Zuzentzailearen bitartez azpiegitura pasiboak finantzatu ahal izateko.

- Olloibarko David Campionek galdetu du zertan den udalerriak Toki Azpiegituretarako Plan Zuzentzailean sartzearen afera hori. Nafarroako Gobernuak azaldu du Toki Azpiegituretarako Plana 3 urteko plana dela, eta lehentasunen ordena toki-erakundeen interesak ezartzen duela, eta ondoren hedapena ordaintzeko dauden funts lokalen erabilgarritasunak. Berriz aipatu da planaren arduradunekin harremanetan jarri beharra dagoela, hedapenaren kostuaren aurrekontua egiteko, azpiegituraren diseinua proposatzeko, eta bestelakoetarako.

3. Galderak, ekarpenak, iradokizunak.

- Banda zabaleko azpiegiturak hedatzeko udal-sare edo -azpiegiturak (publikoak) erabiltzeari dagokionez: ur-kanalizazioak, airetiko linea elektrikoak, argiztapeneko kanalizazioak erabiltzeari buruz galdetu da. Beste hainbat autonomia-erkidegotan izandako esperientziek erakusten dute ez dela egokia linea elektrikoak erabiltzea; halakoetan, lurperatzea gomendatzen da, baina kasu bakoitzean aurrezten dena aztertu beharko litzateke.
- Industrialdeetako barne-konexioari dagokionez, Iker Manterolak galdetu du ea toki-administrazioak bil daitezkeen Nafarroako Gobernuko Ekonomia Garapenerako Departamentuaren funtsetara, industrialdeak barne-konexioa izan dezaten.
- Aitor Larrazak esan du interesaturik daudela Irurtzungo industrialdea "eremu zuri" izendatzeko, konexioa laguntza publikoekin finantzatzeko.

- Eremu beltzetan estaldurarik ez duten "eremu zuriei" dagokienez, Arbizuko, Etxarri Aranazko eta Lakuntzako alkateek eskatu dute haien herrietako auzo bakanduak "eremu zuri" izendatzea, telekomunikazioetako operadoreak jakinarazi baitu ez duela sarerik hedatuko eremu horietan. Horrela, auzo horiek TAPen jardueren barnean sar daitezke.
- Gai horren beraren inguruan, ordezkari horiek proposatu dute "etxebizitzak edo auzoak gehitzea" (5. egoera), Toki Inbertsioetarako Plan Zuzentzaileko funtsez baliatu ahal izateko.
- Bileran hitz egindakotik kanpo, Iker Manterolak esan duenaren arabera, Sakanako telekomunikazioen planaren barnean jasotako ekintzetako bat da Lizarragari eta Dorraori estaldura ematea irrati bidez Artxuetatik. Obra 2017ko urtarriletik aurrera eginen da, zuntz optiko bidezko konexioa egin aurretik. Ekintza horik TAPen barnean sar ote daitekeen galdetu du.